

**TRAFIKOARI, MUGIKORTASUNARI ETA BIDEKO SEGURTASUNARI
BURUZKO IKERKETA PROIEKTUETARAKO DIRU LAGUNTZEN
DEIALDIA, 2016
([2016/05/14ko](#) BOE)**

Deialdiaren helburua:

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) diru laguntzak emango ditu, lehiaketaren bidez, trafikoari, mugikortasunari eta bideko segurtasunari buruzko ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetarako.

Ikerketa mota eta ildoak:

Deialdi honetako diru laguntza jasotzeko aurkezten diren proiektuak ikerketa proiektuak izango dira.

Puntuazioan lehentasuna emango zaien ikerketa ildoak kontsulta daitezke deialdiaren 3. [artikulu](#)n eta [Bideko Segurtasunaren eta Mugikortasunaren inguruko 2013-2016 Ikerketa Planean](#).

Ikerketa taldeen betebeharrak:

INren betebeharrak	TALDEAREN BETEBEHARRAK
<ul style="list-style-type: none"> • Doktore titulua izatea • UPV/EHUko funtzionario izatea edo bertan kontratua izatea 2016/12/31ra arte (<i>deialdiaren 12. artikulua</i>) • Zerbitzu aktiboan egotea • I+G+b-ren arloan gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatua izatea 	<p>UPV/EHUko funtzionario direnak edo bertan kontratua dutenak 2016/12/31ra arte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Doktoreak • Goi mailako tituludunak • Unibertsitate masterreko titulua • Gradu mailako titulua • Bekaldian edo kontratupean dauden doktorego aurreko ikertzaileak <p>UPV/EHUko funtzionario ez direnak edo bertan kontraturik ez dutenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egoitza soziala Espainian ez duten ikerketa erakundeetako ikertzaileak, <u>berenerakundearen berariazko baimena dutenak.</u>
<p>Ikertzaileek deialdi honetako eskaera bakar bat egin dezakete.</p>	

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Eskariak aurkezteko epea **2016eko ekainaren 16an (15:00etan)** amaituko da (**egun hori barne**).

Eskaerak MINECOren egoitza elektronikoa bidez aurkeztuko dira:
<https://sede.micinn.gob.es/proyidtrafico>

Ikertzaileek aplikazioa erabiltzeko gidaliburua kontsulta dezakete honako esteka honetan: <http://www.dgt.es/Galerias/la-dgt/convocatorias/ayudas-subvenciones/2016/Guia-presentacion-solicitudes-2016.pdf>

Ikertzaile nagusiak, formulario elektronikoa betetzeaz gainera, dokumentazio hau erantsi beharko du:

1. Ikertzaile guztien CVa, formatu hauetakoren batean:
 - a. [CVN](#)
 - b. [CVA](#)
2. Proiektuaren memoria zientifiko-teknikoa. [Esteka](#) honetan eskura daiteke eredu.

GARRANTZITSUA: UPV/EHUⁿ EGIN BEHARREKO IZAPIDEA:

UPV/EHUko legezko ordezkariak eskaera elektronikoki sinatu eta bidali egin beharko du.

Eskaera aurkeztu nahi duten ikertzaile nagusiek **maiatzaren 31era arte dute (egun hori barne)** 1. eranskina igortzeko, langileak adierazita, convocatorias.dgi@ehu.es helbidera, ikerketako errektoreordetzak azter dezan.

Beraz, **errektoreordearen sinadura elektronikoa** lortzeko, ikertzaile nagusiak eskaeraren formulario elektronikoa, memoria, kide guztien CVa eta kanpoko langileen baimenak bidali behar ditu convocatorias.dgi@ehu.es helbidera. **Ekainaren 10era arteko (astelehena) epea dute horretarako (egun hori barne)**. Egun horretatik aurrera, ezingo da bermatu eskaera garaiz balioetsiko dela.

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:

Telefono zenbakia: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.es

Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT):

Telefono zenbakia: 060

Helbide elektronikoa: subvenciones2016.investigacion@dgt.es

Informazio gehiago:

<http://www.dgt.es/es/la-dgt/convocatorias/ayudas-y-subvenciones/2016/subvenciones-proyectos-investigacion.shtml>